

A(r)teak zabalduz

BBK-Bilboko Arte Ederren Museoa programa

2020ko maiatzaren 28a, osteguna

BBK Aretoa (On Diego Lopez Haroko Kale Nagusia 19, Bilbo)

BBK-k eta Bilboko Arte Ederren Museoak artearen ateak zabalduko dituzte berriro **Kukaiaren Txango bat** ikuskizunaren estreinaldia eginez iragarriko dute museoak ekainaren 1ean, astelehenean, ateak berriro zabalik izango dituela

Kale Nagusiko BBK Aretoak kultura egitarau oparoa eskaini du konfinamenduak iraun duen egunetan, eta areto horretantxe aurkeztuko da Kukai Dantzak osasun krisian zehar ekoizitako *Txango Bat* sorkuntza originala, zeinak proposatzen baitu museoaren alfabetoan barrenako zeharkaldia. Gaur estreinatuko dute emanaldia, 20:00etan, www.museobilbao.com-en YouTubeko kanalean; eta horrela ospatuko dute bi erakundeek museoa berriz zabalik izango dela eta beren lankidetzaren programa biziak aurrera jarraitzen duela.

COVID-19 eritasunak sortutako osasun krisiaren ondorioz museoak itxi zenez geroztiko lehen ekitaldian, Kale Nagusiko BBK Aretoan agerraldia egingo dute Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu eta Museoko Patronatuko lehendakariak, Nora Sarasola BBKren Gizarte Ekintzaren zuzendariak, Jon Maya dantzari eta koreografoak eta Miguel Zugaza museoaren zuzendariak. Agerraldi horren bidez, elkarrekin iragarri nahi dute bi erakundeek arteko lankidetzaren programa zabala.

BBK-k eta Bilboko Arte Ederren Museoak ateak itxi behar izan dituzte osasun krisiaren unerik latzenetan, baina ez dute beren arteko lankidetzaren eten; hain zuzen ere, konfinamendu garaian, zabalduz lanari eusteko eginahalak egin dituzte, beren misio eta gizarte bokazioarekin bat etorruta. Hala, zenbait proposamen digital eskaini dizkiote publikoari; besteak beste, **ARTEAren kontatu nahi dizugu**, BBK-k haurrei begirako ekintza didaktikoa diseinatzeko izandako ekimenetik eratorritako ekimen bat, Bizkaiko 7.000 familia baino gehiagora iritsi dena.

Konfinamenduak eta gaur egungo krisiak sorkuntza eta erakusketa jardueri ekarri dizkieten mugek, bestalde, aukera berriak sortu dituzte artearen testuinguruan. Eta aukera horiek atxikitzea da, hain zuzen ere, Kukai Dantza taldeak *Txango bat*, museoaren alfabetoan barrenako zeharkaldian planteatzen duen erronka.

Jon Mayak eta Kukai Dantza taldeak bildumaren irakurketa berezi-berezia egin dute, Kirmen Uribek ABC erakusketan proposatutako bidaia kontzeptual bitxia berrinterpretatuz dantzaren, musikaren eta kantuaren bidez. Museoa itxita egon den bitartean errodatu dute, eta ikus-entzunezko ezohiko bat izan da emaitza, artearen konfinamenduaren lekukotasuna. Gorputzek, ahotsak eta musikak betetzen dute bisitarien absentiaren espazioa, eta, aldi berean, gonbita egiten digute artearen aurrean gutako bakoitzari dagokigun toki jakin hori berriro okupatzeko. 19 minutuko ikus-entzunezko kontakizun zoragarri bat da –museoko aretoetan barrenako plano sekuentzia bat ia–, koadroen eta eskulturen esanahi berri eta ezkuak erakusten dizkiguna, dantzaren eta musikaren eskutik.

Kukai Dantzak honela deskribatu du egindako lana: “Une ezohiko honetan, bestela ikusten dira museoak. Bestelako doinu bat dute. Dena hautematen da ohikoaz bestelako modu batean. Artistak eta bisitariak modu berri batean agertzen dira museoaren aurrean”.

BBK-k eta museoak produzitutako *Txango bat* gaur estreinatuko da, maiatzaren 28an, 20:00etan, www.museobilbao.com-en YouTubeko kanalean.

Bestalde, konfinamenduaren ondoren gure lurraldeko bizitza publikoa berreskuratu ahala, beste aukera batzuk zabaltzen doaz, eta BBK-k eta museoak presente egon nahi dute esparru berri horietan; hala, datorren ekainaren 15etik aurrera publikoak aukera izango du **kalean** gozatzeko **BBK Artearen Ibilbidea** proposamenaren bidez.

Erakusketa ibiltaria da, eta asmo didaktiko argia du, museoaren bildumetan barrenako oinarritzko ibilbide bat proposatzen baitu, bildumako berrogei maisulanen goi mailako kalitateko beste hainbeste erreprodukziotan oinarriturik.

Ibilbidea Bilboko Plaza Berrian hasiko da, eta, uda osoan zehar, Arte Ederren Museoa Bizkaiko kostaldeko hainbat herritara eramango du, BBKren eskutik: Getxo, Areeta, Portugalete, Santurtzi, Muskiz, Gorniz, Plentzia, Bakio, Bermeo, Mundaka, Elantxobe, Ispaster, Ondarroa eta Lekeitio.

KUKAI DANTZA. *TXANGO BAT*

Museoaren alfabetoan barrenako zeharkaldia

2020ko maiatzaren 28a, osteguna

Estreinaldia www.museobilbao.com-en YouTubeko kanalean, 20:00etan

Martxoaren erdialdean sortutako osasun krisia dela-eta, itxi egin behar izan dira kulturguneak, eta, azken asteetan, barne gogoeta sakona egin du Bilboko Arte Ederren Museoko lan taldeak, azken hilabeteetan gauzatutako lanari buruz eta agertoki eta erronka berriei buruz, horiek definitzeko eta, ziurgabetasun handia egonik ere, horiei erantzun ahal izateko.

Aurretik izan ziren nahasmena, eten behar izan ziren lanengatik; areto hutsek sortzen zuten publikoaren nostalgia; gure bisitari eta lagunekiko solidaritatea; eta, batez ere, ziurtasun bat:

kultura eta artea ezin baliagarriagoak direla gizartea batzeko, jakintza eta hezkuntzarako tresna gisa, aringarri afektibo gisa; azken batean, artea ezin baliagarriagoa dela, klasikoek zioten moduan, besteak beste, kontsolagarri modura. Eta, hain zuzen ere, absentiaren ideiaz gogoetan, bisitarien presentziarik gabe 'bizigabe' gelditutako aretoen ideiaz gogoetan, konfinamendu isilean zehar areto haietan bestelako bizitza bat imajinatzeko utopia jaio zen.

Eta, utopia horretatik abiatuta, erronka berezi bat sortu zen: museo hutseko bilduman barrenako ibilbide bat, **Jon Maya Sein** dantzari eta koreografoak eta **Kukai Dantza** taldeak dantzaren, musikaren eta kantuaren bidez ezin hobeki interpretatua.

Bestelako gorputz eta hots batzuek gidatuko gaituzte, oraingoan, **Kirmen Uribe** idazleak sortutako kontakizun bereziaren –*ABC. Bilboko Museoaren alfabetoa*– arabera hautatu eta antolatutako bildumako artelanak gordetzen dituzten aretoetan barrena. Halaxe sortu da 19 minutuko iraupena duen ikus-entzunezko kontakizun zoragarri bat –museoko aretoetan barrenako plano sekuentzia bat ia–, koadroen eta eskulturen esanahi berri eta ezkuak erakusten dizkiguna, dantzaren eta musikaren eskutik.

Kukai Dantzak honela deskribatu du egindako lana: "Une ezohiko honetan, bestela ikusten dira museoak. Bestelako doinu bat dute. Dena hautematen da ohikoaz bestelako modu batean. Artistak eta bisitariak modu berri batean agertzen dira museoaren aurrean".

Erronka hauxe proposatzen dugu, bada: Bilboko Arte Ederren Museoaren alfabetoan barrenako txango berezi bat, Kirmen Uribe idazleak museoaren bildumarako garatu duen bidaia kontzeptual zoragarriaren irakurketa berri bat. Jolas gaitzezen bakarrak izatera, museoa bakardade horretatik begiratzeraz eta entzuzteraz, obrek eta espazioek esan nahi diguten hori sentitzera".

Sorkuntza esperientzia berri honetatik, museoak eta BBK-k –proiektuaren bultzatzaile gogotsua– erakusketaren bisitari bakarra bihurtzea proposatzen diete ikus-entzuleei: aretoetan sartzen den lehen pertsona izatea, eta, sorkuntza honek gidatuta, museoko galerietan modu ezohikoan murgiltzea, Bilboko Arte Ederren Museoa birbisitatzea eta artearen muinera bidaia egitea.

Fitxa artistikoa

Zuzendaria:	Jon Maya Sein
Dantzariak:	Alain Maya, Eneko Gil, Leire Otamendi, Urko Mitxelena
Musika:	Maite Larburu & Carlos Taroncher
Ikus-entzunezko sorkuntza:	David Bernués
Soinu kontzeptua:	Xabier Erkizia
Koordinazioa eta produkzioa:	Doltza Oar-Arteta

KUKAI DANTZA

Kukai Dantza taldea Erreterian sortu zen, eta hantxe du egoitza (Gipuzkoa). **Jon Maya Sein** dantzari eta koreografoaren ekimenez sortu zen, 2001ean. **Kukaik** sorkuntza garaikideak egiten ditu euskal dantza tradizionala abiapuntu hartuta, eta beste hizkuntza artistiko eta dantza estilo batzuekiko topaketa bultzatzen du.

'Deiadarra' koreografia laburrarekin eman zion hasiera bere ibilbideari. Harrezkero, hainbat lan ildo uztartzen dituen proiektu artistiko bat garatu du. Tanttaka Teatroa taldearekin duen harreman estuak, esaterako, hizkuntza oso bereziko zenbait proiektu eszeniko sortzeko bidea eman du. 2008an, sorkuntza bide berri bati hasiera eman zion, nazioarteko koreografoak taldera gonbidatuz. Hala, Kukai Dantzak proiektuak landu ditu itzal handiko zenbait koreograforekin: Marcos Morau, Israel Galvan, Cesc Gelabert, Sharon Fridman, La Intrusa Danza, Ione San Martin...

Taldearen bereizgarrietako bat hizkuntza, espazio eta gertaera berezietara egokitzeko gaitasun aparta da; hain zuzen ere, lan artistikoak egin ditu zinemarekin, arkitekturarekin, modarekin, gastronomiarekin eta abarrekin loturiko askotariko testuinguruetan.

Era berean, aipatzekoak dira Kukai Dantzak musikari ospetsuekin egindako lankidetzak ugariak: Oreka Tx, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Carlos Núñez, Iñaki Salvador eta Juan Mari Beltranekin aritu da, besteak beste. Taldeak Erreterian du egoitza; han, publikoak sentsibilizatzeko eta sortzeko proiektu bat garatzen ari da herriko udalarekin batera. Gizarte esparruan, bestalde, integrazioa, prestakuntza eta solidaritatea ardatz duten proiektuak garatzen ditu, dantza abiapuntu harturik.

Kukai Dantzak sari asko irabazi ditu bere ibilbidean zehar. Horien artean, bereziki azpimarratzekoak dira 2017ko Dantzako Sari Nazionala, 2017ko Dantza Ikuskizun Onenaren Max saria, eta 2015eko eta 2017ko Dantzari Zerrenda Onenaren Max sariak, 2016ko Leioako Umore Azokako Ohorezko Saria, 2014ko eta 2016ko Huescako Antzerki eta Dantza Feriako Dantza Ikuskizun Onenaren sariak, Valladolideko Kaleko Arteen Jaialdiko aipamen berezia eta 2003ko Donostiako Antzerki Saria. Eta, duela gutxi, 23. Arte Eszenikoen Max Sarietan dantza-konpainia finalista izan da Dantza Ikuskizunik Onenaren kategorian, *Gauekoak* obrari esker.